

**ERABAKIA, 2024ko OTSAILAREN 6koa, UPV/EHUko IKERKETAREN ARLOKO
ERREKTOREORDEARENA, UPV/EHUko IKERTALDEEI LAGUNTZAK EMATEKO
DEIALDIA (2023) BEHIN BETIKO EBAZTEN DUENA**

Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratu zen, 2023ko ekainaren 5ean, UPV/EHUko IKERTALDEEI LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA (2023).

Eskabideak ebaluatzeko izapidea amaitu ondoren, 2023ko maiatzaren 30ean, Ikerketaren arloko errektoreordetzaren web atarian emandako eta ukatutako eskabideen behin behineko ebazpena argitaratu zen, eta 10 egun balioduneko epea eman zen alegazioak aurkezteko.

Epe horretan alegaziorik aurkeztu ez denez, CIDIk behin betiko ebazpen-proposamena egin dio Ikerketako Errektoreordeari, Ikerketako Errektoreordetzaren webgunean argitarara dezan.

Horregatik guztiagatik, honako hau,

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Onartzea emandako eta ukatutako laguntzen zerrenda, erabaki honetako l. eranskinetan jasota dagoena eta lortutako azken puntuazioaren arabera ordenatuta.

Bigarrena.- Agintzea erabaki hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratu dezaten.

Hirugarrena.- Behin betiko erabakiak administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, inola ere ez aldi berean erabilita:

1. Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarriz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua administrazio isiltasuna medio ezetsi dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 46. artikulua).

2. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 8.3 eta 46. artikulua).

Leioan, 2024ko otsailaren 6an,

Inmaculada Arostegui Madariaga
Ikerketaren arloko Errektoreordea
Vicerrectora de Investigación

I ERANSKINA

EMANDAKO ETA UKATUTAKO LAGUNTZEN BEHIN-BETIKO EBAZPENA

KODEA	IN NAN	PUNTUAKETA	EMANDA/UKATUA	EMANDAKO GUZTIRA 2024-2025
GIU23/002	16***428E	73.5	CONCEDIDA	53550 €
GIU23/003	142**55*S	89.5	CONCEDIDA	13464 €
GIU23/007	1**487*3D	92	CONCEDIDA	39615 €
GIU23/010	30***670R	77	CONCEDIDA	55000 €
GIU23/013	227**31*A	79	CONCEDIDA	17930 €
GIU23/015	30***933H	80.5	CONCEDIDA	42585 €
GIU23/022	X5**208*C	79	CONCEDIDA	18924 €